

Gorroto ditut neskatoak!

Kaixo! Ni naiz, Vanessa, eta sentitzen dut, baina orain ez daukat astirik zuentzat. Arraioa, Amelie! Ze pase izan da hori? Ez zait buruan sartzen! Amelie Dessert. Bat datoz bere izena eta jolasteko modua¹; jolasten denean postrea dirudi, gelatina. Bai, eta itxura ere horrelakoa du! Futbol-klub batean badago, gonarik jantzi ezin duelako da!

Oso urduri nengoen, baina alferrik. Gure aurkariak zeukaten baloia, *Pinnebergeko Neskatxek*, eta erasoan ari ziren. *Neskatxak*, bai, badakit, baina horrelakoa jasan behar dituzu emakumeen futboleant sartzen zarenean. Gu *Holsteineko Futbol-enarak* ginen eta aitortzeak min ematen duen arren, izenak ongi ematen zigun, buztan kiribilak txerriari bezala, horrela jolasten baikinena gu ere. Beno, haiek aritzen ziren horrela zelaian. Zorionez, nik ez neukan horrekin zerikusirik, hirugarren minututik belarretan eserita bainengoen muturtuta. Zimmerlich andreak², gure entrenatzaileak, berehala atera ninduen zelaitik lehen amorraldian. Ameliek ordezkatu ninduen, zelaian dar-dar egiten zuen eta gainontzekoa imajina dezakezue.

Pinnebergeko Neskatxak erasoan ari ziren. Hiru aurrelariak batera zetozen area txikira. Jokoan posizioak zuen garrantzia ulertua zuten, beste hainbat taldek ez bezala. Hala ere, ez genuen pase hura espero. Nire amonak emakumeen arteko lehia deitzen dio horri eta nik diotsuet badakiela zertaz ari den.

–Tira! Sartu! Horrek ez du sekula pasatuko! –oihu egin nien gure atzelariei, gaitzespenez betetako Zimmerlich andrearen begiradari kasurik egin gabe.

Baina nire taldekide maitagarriak entzungor egin zuten. Entrenamenduetan bezain txepel, bi *Neskatxa* hartu zituzten eta hirugarrena bakar-bakarrik utzi zuten baloiarekin. «Erdiratu egingo du», esan zuten eta ahozabalik begiratu zioten Zimmerlich andreari, hirugarrenak ez zuelako erdiratu, noski, eta baloia zuzenean atean sartu zuelako.

Bederatzi eta huts Pinnebergen alde. Nahikoa zen. Jauzi batekin zutitu nintzen, ukabilak estutu nituen eta sakon hartu nuen arnasa... Baina hori izan zen guztia.

–Vanessa! –ohartarazi zidan Zimmerlich andreak–. Beste hitz bat eta ez zara gehiago zelaira aterako!

Nire begirada entrenatzailea hiltzeko modukoa izan zen arren, isilik gelditu nintzen. Kosta ahala kosta jolastu nahi nuen. Zelaiaren bestaldean gure klubeko

¹ *Dessert* “postre” da alemanez

² *Zimperlich* “milika” da alemanez

autobusa gelditu zen. Ziur mutilak garaipenarekin zetoze, beti bezala. Barrutiko haurren artean la crème de la crème ziren. Hanburgo eta Bremenen aurka ere berdinketa lortu zuten.

Ene bada, mutiko haiek nire ametsa ziren. Bai, eta hori gaizki ulertzen duenari, pixka bat bada ere, begiak aterako dizkiot. Zortzi urte ditut, badakizue? Eta adin horretan neskatoek ez dute zerikusirik mutikoekin. Aski da. Nire amonak beste zerbait badio ere. Egunen batean hori aldatu egingo dela dio. Ez dut horretan pentsatu ere egiten, tontakeria da. Argi dago?

Ados! Hala ere nire ametsik handiena ziren gazte haiek. Duela bi urtetik ez nuen beraien taldekide izatea besterik nahi eta horrelako larunbatek aukera paregabea eskaintzen zidaten horretarako. Horrelako larunbatetan zeinen ona nintzen erakutsi ahal nien. Bai, eta agian neskatoekiko aurreiritziak ahaztuko zituzten orduan. Bai, agian ni ikusi eta beraien taldean jolasteko erregutuko zidaten.

Baina Zimperlich andreak ez zuen une batez ere buruan erabili ni zelaira ateratzea. Ordainetan, *Pinnebergeko Neskatxak* hamahiru eta huts zihoazen irabazten. Zelaiaren beste aldean, mutilak barrez lehertzen ari ziren. Belarrarekin ilean txirikordak egiten eta Amelie imitatzen ari ziren, baloiaren atzean dardarka eta negar-zotinka baitzegoen. Orduan, amaitzeko hiru minutu falta zirenean eta hamazazpi eta huts gindoazenean, Zimperlich andrea errukitu egin zen azkenean.

–Beno! Vanessa, aurrelari moduan jolastuko zara Amelierekin. Baina kontuz, okerreko hitz bat eta...

–Lasai, Zimperlich andrea! –oihu egin eta jauzi batekin altxatu nintzen. Ez diot esango zelaian gelatinak baino gehiago egiten duela dar-dar.

Zimperlich andreak arnasa hartu zuen, baina, egia esan, niri bost axola. Beste arazo bat neukan aspalditik. Beste aldean zeuden mutilek gogo biziz egin zuten txistu zelaira atera nintzenean.

–Uau, begira! –oihu egin zuten–. Ordezko bat ere badaukate!

–Bai. Eta partida amaitzeko hiru minutu osorik gelditzen direnean dator!

–Izarra dela egingo nuke!

–Seguru. Hau da hau, urteak dira ez dudala hainbeste barre egin.

Gorri-gorri eginda hasi nintzen korrika, Ferrari baten freno-argien antzera, 350 kilometro orduko doanean bat-batean gelditzen denean. Baina ez nintzen inondik ere frenoetan pentsatzen ari. Kaiku haiek nahi zuten miraria ikusiko zuten. Horregatik, zuzenean Amelierengana joan nintzen korrika. Hura baloiaren atzean dardarka eta

negar-zotinka zegoen, baloiarekin aurrera joateko ahaleginak egiten. Baloia hanketatik kendu nion eta Pinnebergen atera joan nintzen. Bata bestearen atzetik etorri zitzaizkidan neskatzak baina niretzat eslaloneko makilak ziren. Guztiak banan-banan zur eta lur utzi ondoren zuzenean ateko eskuairara jaurti nuen. Pinnebergeko atezaina, lehenengo aldiz jolasten ari zena, lokatzetan erori zen eta Zimperlich andreak oiloen moduan jauzi egin eta esan zuen:

–Gol! Gol! Gol!

Baina ni ez nintzen poztu. Haserre nengoen. Gero eta gehiago. Kaka zaharra, hamazazpi eta huts gindoazen, gu galtzen, eta arrazoi bakarra zegoen, aulkian eserita egon behar izan nuela. Baina partida ez zen amaitu. Bi minutu neuzkan oraindik. Horregatik, Pinnebergeko atezainaren gainetik jauzi egin, nik neuk baloia saretik jaso eta zelai erdira eramane nuen korrika.

Sakea izan zen aurkariek baloiarekin izan zuten kontaktu bakarra. Arbitroak txistua jo bezain laster, erdiko zirkuluan sartu nintzen, erdiko aurrelaria paretik kendu nuen presioa eginez eta berriro aterantz abiatu nintzen. Hogeitase segundo geroago hamazazpi eta bi gindoazen eta hamazazpi eta hirua ere lortu nuen. Orduan jo zuen arbitroak partida amaierako txistua eta orduan begiratu nien mutilei. Zer pentsatzen zuten orain? Ulertu zuten, azkenean, nahikoa ona nintzela beraietzat? Baina buruhandi gelditu nintzen. Zera iruditu zitzaidan, ordura arte ametsetan egon nintzela eta une hartan dutxa izugarri hotz baten azpian nengoela ohe eta guzti. Mutilak ez zeuden han. Joan egin ziren. Haietzat ez zen beharrezkoa han geratzea eta zer egiteko gai nintzen ikustea. Desengainatuta eta amorratuta dardarka hasi nintzen. Eta nire taldekideek, txoritxo ahotsarekin, hamazazpi eta hiruko jipoiagatik *Pinnebergeko Neskatxei* eskerrak ematen zizkieten bitartean, korrika dutxetara ihes egin nuen.

Ur beroak on egin zidan eta lasaitu egin ninduen. Berriro lasaituta eta nire taldekide berritsuei kasurik egin gabe, poltsa sorbaldatik jarri nuen, kirol-jertsearen txanoa txima luze eta marroi-gorrixken gainetik ipini nuen eta bizikleten aparkalekura atera nintzen. Han, futboleko arropak kenduta, neukan gauzarik onena zegoen: nire bizikleta. Benetako Pakka Fully-a. Atxabitxia bezain beltza da eta atzeko pneumatikoa lodiagoa dauka, Enduro batek bezala. Banekien asko jota handik alde egin eta haizea lokian sentitzean dena ondo joango zitzaidala berriro. Nahiz eta, oraindik ere, mutila izan nahi nuen, azkenaldian gero eta gehiago gainera. Giltzarrapoa ateratzeko makurtu nintzen eta konbinazioa markatu nuen. Nire amaren jaiotze eguna zen. Duela berrogeita hamabi aste eta erdi hil zen. Une hartan zera esan zidan norbaitek atzetik:

–Bizikleta aparta zurea, klub osoko onena!